






# UDAN EZ DUGU IXTEN



Han eta hemen ikusi ohi den "Oporragatik itxita" oharrari, guk "Oporretan ez dugu ixten" erantzuten diogu. Zergatik? Ba, guk zure oporretan ez dugulako ixten eta uztaila duzulako unerik egokiena ZUK euskara zeregin bakartzat hartzeko.

**ZURE OPORRETAN  
ATEAK IREKIRIK  
DITUGU**

## UDA IKASTAROA 92

Uztailaren 1etik 28ra arte  
5 ordu goizez  
Maila guztiak  
Matrikulaldia:  
Ekainaren 15etik 26ra arte  
Prezioa:  
5.500 pzta. (materiala barne)  
16urtetik gorakoentzat  
Beka sistema dago

Informazio zehatzagoa:  
BERGARAKO  
UDAL EUSKALTEGIA  
Bidekurutzeta, 27 2.a  
(Sarrera Zabalotegitik)  
BERGARA  
Tfnoa:76 44 53



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jauriaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Eburne Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezar, J. M. Elaxpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**  
B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.


## PROTAGONISTAK

### BITORIANATXO

Pazkuetako jaien etorrerarekin Seminarioko teilatutik Udaltxeko aulki nagusira, alkatearen aulkira alegia, jeisten den Bitorianatxo izan da aurten ere jaietako protagonista. Gertaera xelege batzuk sekula baino protagonistagoa egin dute Bitorianatxo.

Izan ere, larunbat arratsaldean, Bitorianatxo lapurtu eta Udaltxeko tokiren baten ezkutatu zuten antzuolar batzuk.

Trapuzko panpina errekuperatu nahi izanez gero Antzuolaren independentziagatik bere momentuan or-



daindu ziren 5.000 dukatak ematea eskatu zioten antzuolarrek, Bergarako alkateari

Eskaera anekdota hutsean geratu zen, udaltzainek Bitorianatxo topatu zuten eta.

### Jaietan bahitu zuten antzuolarrek

## ITURRI ONETIK

### Azoka Plazako obrak epez zertxobait atzeratuta

Merkatu berriko lanak bide onetik badoaz ere, ez dira irailerako amaituko, azaro alderako baizik.

Bestalde, jakin izan dugu azokako postuak hartzeko eskaera baldintza pleguak ia prest daudela. Eraikiko diren 24 postuetako lehendabiziko 12ak oraingo merkatuan daudeneztat izango omen dira. Ziurtatzeke badago ere, 6 milioi eskatuko da postu bakoitzeko.

## ESAN DUTE

"Instrumento bat ikasi, musika disfrutatu, hezkuntza zabaldu eta bizia alaitu, hau da Musika Eskolaren eginkizuna".

**R. AMASORRAIN**  
Musika Eskolako Presidentea  
EL DIARIO VASCO

"Gaur egungo hurrek ez daukate dantzarako zaletasunik".

**XAMATZ DANTZA TALDEA**  
EGUNKARIA

"Hemen neu hasi nintzen tiroles kantuekin, Egan eta horiek ni baino beranduago hasi ziren".

**"KIKIO"**  
EGIN

"Nere mentalitatea ez da txapel bila ibiltzearena".

**J. M. ZEZEAGA**  
EGIN

*Pepelu*  
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

# MUGICA

## Burdinaki denda

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA



## ZINEA



## LA FAMILIA ADAMS

Ostirala: 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30  
eta 22.15.  
Astelehena: 19.30.



## THELMA Y LOUISE

Larunbata: 17.00, 19.30  
eta 22.30.



## LA CARNE

Osteguna: 19.30  
(Zine-klub).

▼▼ Ez beldurtu, familia bitxia eta sinpatikoa osatzen dute *adamstarrek*. Estatu Batuetan eta Europan ere harrera bikaina jaso dute ikusleen aldetik eta guri ere ordu t'erdi atsegina pasa erazteko datozkigu bisitan. **Anjelica Huston** eta **Raul Julia** famatuak ditugu errepartoaren buruan.

▼▼ Oskar garrantzitsurik irabazi ez bazuen ere, filme hau izan dugu duda barik denboraldiko arrakastatsuen, kritikaren aho bateko errekonozimendua ere jasoz. **Ridley Scott**en zuzendaritzapean, **Susan Sarandon** eta **Geena Davies**ek bidaia zoragarria egitera bultzatuko dituen emakumearen ikuspegi garrantza ematen digute.

▼▼ Cannesekeo iazko edizioan aurkeztu zenean, kritika ez zen batere aldekoa ona izan **Marco Ferrerik** zuzendutako azken filmarekin. Hala ere, **Francesca Dellerak** protagonizatuta, filmeak izan duen eskandalosoaren etiketak balio izan dio gure pantailetara heldu ahal izateko.

## ERAKUSKETAK

• **Bergara Hiria Argazki Lehiaketara** aurkeztutako hainbat gai igandera arte Kultur Etxean ikusgai.



Agustin Gurrutxaga

• **Simon Arrieta Zeramika Tallereko** lanak Kultur Etxean ekainaren 14ra arte baita.

## DEIAK

• **Musika Eskolako** batzarra ostegunean, hilak 18, arratsaldeko 7 t'erdietan Zabalotegipeko lokalean. LOGSE legea izango da aztergai.

• **Helduen Heziketa Iraunkorreko** hainbat taller ekainaren 11tik 19ra bitartean. Argibide gehiago 76 44 52 telefonoan.


ELKAR



ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako  
instalazioak

76 00 00 BERGARA



Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,  
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



## JAIALDIAK

• **Euskaldunon Egunkaria-  
ren** aldeko jaia igandean, ekainak 21, Usurbilen. Agunkariaren aldeko Batzordeak autobusak antolatu ditu. Izena emateko JARDUN Elkartera jo dezakezue. Irteera goizeko 10etan Bheeko estazitik izango da. 700 pta.

• **Udal Kirol Eskolen jaia** larunbatean, hilak 20, Labegaraietako Kiroldegian. Proba desberdinak izango dira goiz osoan zehar eta, amaieran, sariak banatuko dira.

## KIROLAK

### FUTBOLA

- **Erdibiterrak-Pikapiedras** astelehenean 19.30etan Ipintzan.
- **Talleres San Joxepe-Txamonix** 20.30etan.
- **Madura-Beti-Ona** asteartean, hilak 16, 19.30etan Ipintzan.
- **Etxagi-Ogizun** 20.30etan.
- **Angiozar-Amilotx** asteazkenean 19.30etan.
- **Azken Postu-Soropotroak** 20.30etan.
- **Ikusi Intxusi-A ze flaxa** ostegunean 19.30etan.
- **Bar Panaderokua-Zabetx** 20.30etan.

### PELOTA

- **Herriko Arteko Pelota Txapelketa:**  
- Bergara- Azpeitia (itzulerako kanporaketa), ostiralean, hilak 12, gaueko 10etan.

### ARRANTZA

- **Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak** katuko da antolaturik, Arrantza lehiaketa Angiozarren igandean, hilak 14, goizeko 8etatik aurrera. Haur, gazte eta nagusientzat.

## FARMAZIAK

- **Larunbata 13:** Guallar.
- **Igandea 14:** Guallar.
- **Astelehena 15:** Estella.
- **Asteartea 16:** Mozos/Ruiz (Arrasaten gauez).
- **Asteazkena 17:** Camacho/Morales.
- **Osteguna 18:** Puy/Azkoaga.
- **Ostirala 19:** Guallar/Corcuera.

## AUKERAN



**Euskal Bizikletaren** etapa helduko zaigu asteazken arratsaldean, hilak 18, gure herrira. Gatika eta Bergara arteko etapa Ibargarai kalean amaituko da eta, ostegun eguerdian, Seminarioetik aterako da Donostian amaituko dena. Munduko txirrindularirik onenetarikoak gertu gertutik ikusteko aukera.

## OGIA

- **Igandea 14:** Mizpildi.

## MAKAILO

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

## ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,  
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

## ANTIA

HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi  
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



**Udal zirkoa**

Orain dela egun batzuk, Beheko Estazioan, herriko zuhaitz batzuk lur-rean berriz ere ikusi ahal izan genituen.

Zuhaitz botatze honen arrazoiaz informatzeko denbora hartu eta Bergarako Udaletxe eta estazioko bizilagunekin hitz egin ondoren, gaiari buruzko gure eritziak aurkeztu nahi ditugu:

1.- Estazioko plazako zuhaitzak zirku eta barrakei tokia egiteko bota direla.

2.- Bergaran espazio falta dagoela onartu arren, ulertezina da beti landaretza kentzearen txapuz hori. Argi dago hiriko arduradunek landaretza oztopo edo traba bezala ikusten dutela soilik (gertaerik frogatzen dute).

2.- Txurreria, urdaiazpikoak erregalaten dituzten tonbola edo tiroa kokatzea baino baliotsuagoa da ihauliak eta gero eta urriagoak diren zuhaitz hiritarrak urte guztian zehar mantentzea. Baina, noski zuhaitzak ezin dute zirko eta gainontzeko txiringitoez bezala alkilerrik ordaindu.

3.- Itxura denez, ekintza hauek geldiezinezko **ohiturak** bihurtu dira. Ingurua ikusi besterik ez dago: ibai

ertzetako landaretzaren txikitzea (Abrain, San Juan, Arane Erreka, Idurixoa e.a.); ekosistema berezi hauek ura garraiatzen duten kanale hutsean bihurtzea (Deba ibaia barne); Santana, Rekalde eta trenbide inguruetako zurgamuxken birrintzea; poda gogor, justifikagabe eta orokorrak; kontrolik gabeko matarrasa eta subsoladoak edozein mendietan.

4.- Tekniko edo politikoez errua izan, Bergarako Udaletxeko erabakiek betiko sentsibilitate falta lotsagarria erakusten jarraitzen dute.

**Mendia Bizirik**

**Okerrak zuzentzen**

Berrigararen 65. aleko Galde Debalde lehiaketako erantzunean, Elhuyar anaiek "Wolframioa eta Tungsdenoa" aurkitu zutela oker jarri genuen. Jakina den bezala Wolframioa eta Tungsdenoa gauza bera dira eta. Beraz erantzun zuzena, "Wolframioa edo Tungsdenoa" zen. "Eta"ren ordez "edo" jarri izan behar genuen.

Bestalde, 66. alean "Eguzkitan jaritzeko garaia" izenburuko elkarrizketa

Ana Etxaniz bergarar estetizienari egin genion eta ez Begoña Etxanizii, bertan jarri genuen bezala.

Barkamenak Anari bere izena ondo ez jartzearren.

**Berrigara**

**OHARRA:**

Gutunak sailera bidaltzen diren eskutitzak 20-25 lerrotakoak baino txikiagoak behar dute izan eta bidaltzailearen izen-abizenak eta N.A.N.ren zenbakia eman beharko dira., Hala ere, bidaltzaileari bere gutuna izen-orde batekin publikatzeko aukera emango zaio.

**Tiira ba!**



**Josu Okina**





### □ Trafikoa

Hurrengo ostegunean Bergaran amaituko den Euskal Bizikleta-ren etapa dela eta, trafiko eta aparkalekutan zenbait aldaketa egingo dira: Ibargarai (Beheko Estazioetik Infernukuaraino) eta Zurradero kaleetan ezin izango da aparkatu. Ibargarai kalerantzako pasua bai Infernukuan eta bai Santa Marinaran moztuko da eta kale hauek goizeko 9etarako hutsik egon behar dira.

### □ 1127

Zenbaki honek irabazi ditu Labegaraletako jaiak eta Ikastolako ikasleek azken bidairako antolatutako zozketak. Bi pertsonentzako afarria eta, Ikastolaren kasuan, bi pertsonentzako bidaia jasoko du irabazleak ekainaren 19a baino lehen aurkeztu ezker.

## Gorla ingurua garbitzeko irteera egingo da igande goizean

Euskal Herri mailan burutzen ari den *Mendien garbitasunaren aldeko kanpainaren* barne, Gorla ingurua garbituko dute igandean Pol-Pol eta Gorla Alpino mendizale taldeek. Gipuzkoako Mendi Federakuntzak eta Diputazioak martxan jarri duten kanpaina honek gure mendietan geratzen diren zaborren kontrako sensibilizazioa sortaraztea du helburu. Bertan Gipuzkoako 40 bat taldek hartzen dute parte (Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeak tartean), hil osoan zehar garbiketak eginez mendi ezberdinetan.

### Zaborra etxera

Horrela, gure ohitura txarrak aldatzeko eskatzen dute antolatzaileek etorkizunean mendiak garbi eta bizi ikusi ahal




izateko. Zaborrak, mendietako zabortegietan utzi beharrean, etxera eramatea komeni da, kontutan hartuz zaborteak gehienetan zaborrez gainezka egoten direla.

Fruta azalak, ogia, e.a. bideodegradagarriak badira ere, lurrean botata ikustea ez da batere atsegina. Horregatik ekolo-

jistek dei egiten dute jendeak zaborra boltsetan sartu eta etxera eramateko. Igandean eta mendia aurrerantzean garbi egon dadin, Pol-Pol eta Elusumendiren garbiketaren kolaboratzeko dei egiten dute antolatzaileek. Toki horietara irteera goizeko 9etan izango da San Martin Plazatik.

## Gutxitu sikikoen festa

Larunbat goizean Gipuzkoa osotik etorritako 400 bat gutxitu sikiko bilduko dira Altzasun kolektibo honen anaiarteko eguna ospatzeko asmoz. ATZEGI gutxitu sikikoen elkarteak probintzia osoan banaturik ditu gutxitu sikikoendako astialdirako taldeak, Txolarte izenekoak eta musutruke lan egiten dutenak. Hain zuzen ere, Bergarako Txolarte taldea izan da antolatetaz arduratu dena; goizetik hasi eta arratsaldeko 7ak arte ibilaldiak, jolasak, musika, hankapaluak... etab. luze bat izango da Altzasun gutxitu sikiko gipuzkoarren festa egun honetan.



**GAZTELV S.A.**  
**Burdinaki denda**

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA


Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01





## Piszinak zabaltzear

Ekainaren 7rako amaituta egongo zirela iragarri bazen ere, oraindik lan gutxi batzuk falta dira kanpoko igerilekuak zabaltzeko. Ostegunean eta gaur, ostirala, igerilekuak bete eta, berehala, ur tratamenduen probak egiteko ziren. Horrez gain erremate batzuk burutzea ere falta da, hala nola, zenbait hamaka, sonbrillak eta balanzin batzuk apaingarri modura jartzea. Xabier Gallastegi Hirigintza Bartzordeko arduradunaren esanetan, "piszinak lehen baino jantziagoak gera-

*tuko dira. Probak egin eta egun pare bat itxaron beharko dugu ura zertxobait epeldu arte, asteazkenean arte igual".*

Azken bi hilabeteotan egindako obrek 20 milioiko aurrekontua dute, eta igerilekuak Osasun Departamentuak ezarritako neurriei egokitzeko balio izango dute. Igerileku haundi eta txikiko hondoak % 2,5eko aldapan jarri dira eta baldosa ere ipini da. Culligan enpresak ia zehazitako plangintzak 130 miloi inguruko aurrekontua izan du.

# Txinpartak

✓ **Bergara Hiria Argazki Lehiaketa**ren sari banaketa egingo da larunbatean arratsaldeko 8etan Kultur Etxean.

✓ **Haurren Egunean**, ekainaren 28an, etxeetan haurrak hartu nahi dituztenek Ikastola Aranzadira (762676) deitu dezakete.

✓ **Olinpiaden** edizio berri bat antolatzeko bilera egingo da larunbatean, hilak 13, eguerdiko 12etan Kultur Etxean.

✓ **DYAK** urteroko diru eskaera egingo du larunbatean eta igandean, ekainak 13 eta 14.

✓ **Polizia Akademia Eroa I** bideoa emango da larunbatean goizeko 11etan Kultur Etxean JARDUNeko programazioaren barne.

✓ **Euskara Zerbitzuak** laguntzak eskeintzen ditu barnetegietara euskara ikastera joan nahi dutenei. Langabetuek % 70a artea dirulaguntzak jaso ditzakete eta gainontzekoek % 20a artekoa.

✓ **Soldaduzkarako** ikasketa prorroga eskatu nahi dutenek Udaletxera jo dezakete uztailaren 15 baino lehen.

✓ **Sexologia Zerbitzuan** parte hartu nahi dutenek eskakizuna bete beharko dute Udaletxean ekainaren 19a baino lehen 1.000 pta. ren truke.

IZOZKIAK

IZARRHOTZ

IZOZKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

## SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA  
Tfnoa: Biltegia: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

# Kabia

## Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE



# San Pelaio

## batzuk bere irudia ezagutu dute


**G**u askotan pasa izan gara San Pelaioaren ermita zegoen ondotik Elgetarako bidean, San Juango lautadaren bukaeran, Esperantza baserria baino metro batzuk lehenago. Gauzak ez zituzten nolahi egiten: haranaren hasieran, Elgetarako eta Bizkaikorako bidean, agian Santiagorako bidean, San Juan ermita. Gutxi gora behera kilometro batera San Pelaio. Gorago Uriarteko Andre Maria galtzada zaharrea. San Pelaio ez zeukan santutxurik bide ertzean zegoelako, baina esandako beste hiru ermitak badaukate. Gauzak ez zituztela nolahi egiten adierazteko, esan behar da gainera kristau kalendarioak San Pelaioaren jaia San Juan Bataiatzailearen biharamonean ospatzen

duela, gure bidean ere ondoren zen bezala, hau ekainaren 24an eta hura 25ean.

Nola zitekeen hain tarte ttikian eta baserri gutxi batzuren erdian hiru egotea? San Juan, San Pelaio eta Irazabaleko Santikruz. Bidea, auzoa... beste arrazoiren bat ere bai ote ermita horietakoren bat altxatzeko?

San Pelaio ermitari buruz daukagun lehen dabiliko urtea 1.477koa da. Orduan Aristar (Aiskar) baserriaren mugetan aipatzen dira Berraondo, Irazabal, Anchotegi, Artis eta Elgetatik jeisten den ibaia. Hau dena Oxiron doko monastegian eta San Pelaio ermitaren ondoan.

Gure artean asko dira etxetxo bat, baratza eta guzti, ezagutu dutenak, ermitaren seroaren bizi-



lekua zalantzarik gabe. San Pelaioaren zurezko irudia ere batzuk ezagutu dute.

San Pelaio ermita, garai batean argazkian agertzen den Esperantza baserriaren aurrealde inguruan aurkitzen zen. Ermitari buruz daukagun lehenengo datua 1.477koa da.

*Imanol Sorondo*



### POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

### DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

## TOKI-EDER

### Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

## KONDE

### PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



# Eguraldi kaxkarrari aurpegi ona!!



Alkateak ikurriña Udaletxeko balkoian jartzearekin, Xamatz dantza taldearen saioarekin eta Bitorianatxoren jeitxierarekin eman zitzaien hasiera aurtengo jaietara.



**IRUBIDE  
Taberna**

Bazkariak, gosariak,  
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

**Kailash**

**Zentro Esoterikoa**

Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean diplomatutako  
profesionalak.

•tarot-a •Hipnosia •Erresonantzia  
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

**LXUKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA



# PAZKUAK 92

Bergarako jaizak



Guztiek izan dute disfrutatzeke aukera: eguraldi kaxkarrari aurpegi ona!!



Argazkikoari ez zaio estilorik falta. Astelehen eta astearteko sokamuturrak, aurten ere oso ikusgarriak gertatu dira. Zezena bikain toreatu zuten gehienek, baina batzuk susto ederrak hartu zituzten eta beste batzuk adarkada ederrak hartu ere.



umelaga  
**JATETXEA**

San Antonio 5 BERGARA  
Tfnoa: 76 20 21

**MINER** Ardo onak,  
**ardak** jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA





### ▲ Euskadiko Sokatira Txapelketa

**Lurgainean** larunbatean jokatu zen Bergaran eta nuarbetarrak izan genituen nagusi gizonetzkoetan: 640 kilotako mailan eta baita 680 kilotakoan ere eurak izan ziren lehian aritu ziren zazpi taldeen artean onenak. Emakumezkoetan, berriz, Laukizeko Gaztedikoak izan genituen indartsuenak. Jende dexente hurbildu zen norgehiagoka ikustera.

▶ Ibon Olaldi marrazki sailean, 8 urtetik beherakoen artean, Aitor Barrutia (marrazki saila) eta Xabier Ezkibel (margo saila) 8 urteetatik 11 urteetarako artean eta Iñaki Larrañaga (marrazki saila) eta Oiana Retegi (margo saila), 11tik gorakoen artean, izan dira Bergarako Kultur Ekintzak antolatutako **XII. Haurren Marrazki eta Margo Lehiaketako** irabazleak.



▶ Argazkiko hauek irabazi dute Euskara Zerbitzuak antolatutako **VIII. Literatur Lehiaketa**. 300 lan inguru aurkeztu eta epaimahaiaren iritziz maila hobetu egin da beste edizioekin konparatuz. Hauek izan dira kategoria ezberdinetan lehen saria irabazi dutenak. Ezkerretik eskumara: Iñigo Albistegi, Leire Ibarzabal, Soraia Alonso eta Jon Alvarez (argazkian Jon Altuna «Oxan», nagusien taldeko irabazlea eta Ignacio Dovao falta dira). Euskara Zerbitzuak saritutako lanekin liburutxo bat argitaratuko du.

**PAZKUAK 92**  
Bergarako jaizak



▲ Ion Aranburu eta Maite Lazkano bergararrek (541 puntu) osatutako bikoteak irabazi zuen igandean jokaturako 14 urtez beherakoentzako **Euskadiko XV. Dantza Askatu Txapelketa**. Bigarren, Ibon eta Olatz idiziabaldarrak (540 puntu) sailkatu ziren. 28 bikotek hartu zuten parte eta beste sari berezi batzu banatu ziren: traje dotoreena zeraman bikoteari saria, Ion Aranburu eta Maite Lazkanok jaso zuten; eta dantzari onenari saria, berriz, Ion Aranburuk eraman zuen mutikoen artean eta Olatz Nograro idiazabaldarrak, berriz, nesken artean.



*Mugica*  
Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34

**PRiMi**

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90  
San Antonion Tfnoa: 76 21 08  
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91



**LIZAR**

**Altzariak**

Dr. fleming 5, Tfnoa: 76 16 53





▲ **Jardun Elkarteak antolatutako Brusa lehiaketa**ra 16 kuadrila aurkeztu ziren (kuadrila batek 2 brusa presentatu zituen).

Argazkian ikus ditzakezue bi kategorietako irabazleak. 14 urtez gorakoen taldean, "*Ardoak jaietan bezala, euskarak geure barruan eragin dezala*" esaldiaren egileek (ezkerreko argazkian golfo itxuraz agertzen diren horiek) eraman zuten lehen saria (33.000 pezeta). 14 urtez azpikoen taldean, ostera, "*Bergarako jaiak dira, ez ezazu egin pira*" lema azaldu zuen eta eskumaldeko argazkian agertzen den zazpikoteari eman zitzaion lehen saria (18.000 pezeta). Lehiaketa arrakastatsua gertatu denez eta aurtengoa aurreneko aldia izan dela kontutan hartuta, datorren urtean berriz ere antolatzeko asmoa azaldu du Jardunek. Ea ba, animatu zaitezte aurtien huts egin duzuenok.



◀ *Iveco* taldeko Oiert Alberdik irabazi zuen igandean jokaturako **LVII. Pentekoste Txirindularitza Lasterketa**. Bigarren mailako afizionatuen mailan lortzen duen lehendabiziko garaipena izan zen igandekoa Oierrentzat, horregatik pozez gainezka azaldu zitzaigun Ibigaraiko helmuga inguruan.



▲ Aitor Aranzabal eta Esteban Lazkanok irabazi zuten astearte arratsaldean burututako Deba ibaiko **IV. Baltsa Jeitsiera**. Jendetza izugarria bildu zuen ekitaldiaren xede nagusia Deba ibaia garbia erreibindikatzea bazen ere, lasterketa oso ikusgarria gertatu zen parte hartu zuten hiru baltsen arteko norgehiagoka "*hil ala bizikoa*" izan zelarik

► Maila izugarria erakutsi zuten igandean, **Bergara Hiria Saria** jokatu zuten estatu osotik etorritako 80 bat **Xake** jokalariek. Galiziatik etorritakoak izan genituen garaile eta euren atzetik Bilboko Peña Rey Ardiz, bigarren, eta Irungo Lasalle, hirugarren, sailkatu ziren. 16 talde aritu ziren lehian eta Bergarako Xake Taldeak meritu haundiko 10. postua lortu zuen madrildar, katalandar edota nafarren aurretik sailkatuz.



**PUB ROSA**  
  
 Tfnoa: 76 38 57  
 Irala 1

**Tximak**  
*Ileapaindegia*  
 Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

**AGIRREBEÑA**  
**Oinetakoak**  
**Erropa denda**  
**Lenzeria**  
 Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



## Zubiberri

### Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



**ETXE  
AUNDI**

Negoio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI

**FS**  
oto istema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50



**ILEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA

## Mendira zoazenean zer egiten duzu zaborrarekin?



**Arantxa Aldekoa**  
42 urte, langilea

Neuk eramandako plastikozko boltsa batean gorde. Berziklatzeko ontzi gehiago behar dira.



**Hilario Manzanedo**  
26 urte, langabetua

Normalean zaborra boltsan sartu eta bueltan ekartzen dut, zenbaitetan zigarroren bat edo beste bota arren...



**Mikel Larrañaga**  
28 urte, langilea

Sartu eta dena boltsan ekartzen dut. Batzutan produktu bideodedagarriak bota ere...



**Alex Muela**  
18 urte, ikaslea

Batzuetan poltsetan gordetzen dut, baina gehienetan bertan botatzen dut.

**ESPOLON**



**School of English**

## INGLES IKASTARO INTENTSIBOETARAKO

matrikula zabalik.

- Haur eta helduentzat
- Maila guztiak
- Goiz eta arratsaldez
- Kurtsoaren hasiera  
**EKAINAREN 25EAN**

**92-93 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK,  
LEHENGO IKASLEENTZAT ZEIN BERRIENTZAT.**

Argibide gehiago: Astelehenetik ostiralera 10etatik-12.30etara eta 15etatik 16etara.

Ibargarai 31, Tfnoa: 76 03 53






## Jugoslavia

Jugoslaviak bizi duen egoerak ezin du askoz gehiago iraun. Gertatzen diren eraso gogorrei nonbaitetik egin beharko zaie aurre, baina orain arte gertatu dena ikusita ez dago oso argi nondik. ONUko Segurtasun Batzordeak hartu ditu, hori bai kostata, neurri batzuk, baina neurri hauek nahikoak ez direla ondo ikusi dugu. Jugoslavia ez da Irak, eta hori argi dago. Enbargoarekin lortu nahi zen gutzia ez da lortu, eta Jugoslavian dauden kasko urdinek ez dute oraindik, behintzat, baimenik jaso erasoei behar den neurrian aurre egiteko. Egoera honen errudun zein den ez da batere erraza esatea, politika da azken finean eta bakoitzak bere arrazoiak ditu bere burua salbatzeko.

Bitartean nortzuk dira kaltetuenak? Noski, biztanleak, oinezkoak. Gauzak gero eta larriagoak daude beraiantzat. Sarajevoko edo beste herri bateko gizon edo emakume bat ikustea kaleak korrika zeharkatzen bere etxera bueltatzeko, esne botila edo ogi bat eskuan duelarik, ez da oso irudi normala. Heriotza kale erdian ez aurkitzeko derrigorrezkoa bihurtu den irudi horrek pentsa erazten dizu eta konponbide bat eskatzera bultzatzen zaitu. Zentzu horretan ez da, noski, lehenengo eskaera, izan dira bai beste asko.

Dena den, eta momentuz, hauexek eta antzekoak dira Jugoslavian bizi diren une tristeak. Egoera odoltsu honen irtenbideren baten zai jarraituko dugu bitartean.

**Ane Miren Lizarralde**



## Mendia garbia

Datorren igandean mendira abiatuko gara, beste edozein astetan bezala -zu ere etor zaitezke-, eta gure herriko mendi batzu garbituko ditugu.

Ez dugu uste gauza haundirik egingo dugunik egun horretan, ez, ogitartekoren baten aluminioa edo "konturatu gabe" utzitako lata hutsen bat jaso besterik ez.

Baina gure pentsamentua sakonagoa da. Mendiaren beharra daukagu eta disfrutatzen joaten gara bertara. Zergatik ez dugu topatu bezala, edo hobeto ahal bada, lagatzen?

Kontu pixkatekin ibili eta hurrengo baten gu geu edo besteren batzu honetaz disfruta dezaketela pentsatu beharko genuke.

Zaborrak sortuz gero, bakoitzaren poltsan sartu eta etxera ekarriz gero, dena egina dago. Hau ondo ulertu arren, askotan ahaztu egiten zaigu.

Arazoa larria da, eta soluziobidea erraza: lagundu!

**Jesus Alvarez**



**MAHER**  
Biltegiak L.E.  
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75



**IRAKASLE ESKOLA**  
Eskoriatza  
Gipuzkoa

**Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:  
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epaia  
zabalik dagoela.**

**ESPEZIALITATEAK:**

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

**BIGARREN DIPLOMATURAK:**

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

**Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40**  
Ordutegia: 9-13



# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



## Novedadesetik Venezuelara

Datorren larunbatean gaueko 10 t'erdietan estreinatuko da Novedadesen **Taun-Taun** txotxongilo taldearen *Taun Taun Show* azken lanaren euskarazko bertsioa. Azkenean, hainbat bider atzeratu ondoren, talde honen majiarekin primeran pasatzeko aukera izango dugu, karnabaletan aurre estreinaldian izandako arrakastaren ondoren. Eta ez guk bakarrik; Venezuelan ere izango dute, handik zehar izango baitira datozen bi hilabeteotan, *Lam eta lorea* eta *Bi kate* lanak antzestuko dituztelarik hango hainbat hiritan. Zorte on!!



Eufemia eta Alfonso Venezuelara egingo duten bidaiarekin ametsetan.

# ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adrieluzko botellatokia
- Mailazua

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

## Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

## GANBARA

**Berezitasunak:**  
Pintxoak eta  
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T  
B  
E  
R  
N  
A

## iRUDI

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

San Pedro 11  
Tfnoa: 76 51 65






□ Txapeldunak, oe, oe, oe...

Lehenengo astean aipatu genuen bezala Bergara K.E.ko bigarren mailako kadete futbol taldeak Federazioaren Kopa irabazi zuen Zumaian Aldapeta taldeari 4 eta 2 irabaziz. Donostiarrak 1 eta 0 aurreratu baziren ere, bigarren zatian bergararrak *esnatu* eta 4 gol egin zituzten. Argazkian dituzue **Beitiaren** mutilak, lasai asko kopa jadanik boltsikoetan dutela.

□ Margotan


**Abdon Juaristi** margolari bergararrak irabazi zuen joan den igandean Avilan ospatutako **Avila Hiriko Margo Lehiaketa Azkarra**. Guztira, Estatu osotik eta Amerika, Asia eta Europear herrialde ezberdinetatik etorritako 800 bat margolari aurkeztu ziren lehiaketa honetara. Hiria margolariz josita eta epaimahaiaren eritziz Abdon izan zen hobekien plasmatu zuena igande goizean euritsu zegoen Avila. Lehen sari honek oraindik ospe haundiagoa eta, bide batez, 500.000 ptako saria eman dio.

ZORIONAK!




*Zertan dibardute ba?*

JUAN BALENTZIAGA



31 urteko margolari bergararrak Estatu mailan antolatutako gutxituen margo lehiaketaren bigarren edizioan Euskadiko lanen artean lehen saria irabazi du, 25.000 pta.ko saria jasoz.

ENEKO OREGI



38 urteko bergarar hau, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatuta eta Eusko Jaurlearitzako Itzulpen Zerbitzuan lan egiten duena, Arabako Eusko Alkartasunako buru izendatu berri dute.

**OILAGORRA**  
**Taberna**

Barrenkale 21, BERGARA

**ARREGI**  
**Eraikuntza**  
**materialeak**

Biltegia Tellerlan, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaralta Auzoa

**URRATS**  
**Kafetegia**

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92  
BERGARA



## Umore giroan

Asko jan bakua

"Egun baten, -umien gauzak- "Otua"n semiak jo egin zeban guardia zibil baten mutikoa. Ori dala-ta, etorri da "Otu-a" rengana aserre eta arpegi zorrotzakin guardia zibilla.

- Su hijo de Vd. le ha dado una paliza al mio. Yo les enseñaré a Vds. lo que es bueno!. En este pueblo he de comer vivo a alguien!.

"Otu"n erantzuna:

- Ikusten dok, bai, oiñ arte ezuala asko jan...

\* \* \*

Zer lora klase?

Beste beiñ, kontra-maixuak emon zetsan Otuari kopixa bat, rebolber baten dibujo batzuk eitxeko aginduaz. Baziarduan Otuak, baiñan,

itxura danez, ez kontra-maixuaren gustora.

- Zer eifñ dok emen? Barrua urratuta laga detsak. Orreri lorak atara bi-ar jakuaz!.

Eta Otuak:

- Zer lora klase? Larrosak ala krabeliñak?

\* \* \*

Diskuziñuan

"Balbotin" eta beste eibartar bat diskuziñuan ariziran, eta, itxura danez, zarata askotxo ataratzten. Etorri jakue alguazil bat:

- Zer mutilak, zer esaten diarduzue?

"Balbotin"ek:

- Guk auxe besterik ez genduan esaten: "Gosia gora doiala eta pesetia bera".

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Erdi Aroko pintura Bergaran

XIV. mendean pintura gotikoak garapen zabala izan bazuen Araba eta nafarroan, Gipuzkoan, berriz, iharduera honen frogarik ez da aurkitzen. XV. mendeari dagokionez, eta eragin flamandarra erregio mailako tailerretara iritsi bazen ere, ez ziren kalitate haundiko obrak egin, Flandes eta euskal portuen arteko merkatal harremanek kalitate eta prestigio haundiko pintura flamendarraren inportazioa ahalbideratu bait zuten. Handik ekarri ziren obretako bat, "Kristo hilagatik dolua", Bergarako Udaletxean gordetzen da gaurregun, Erdi Aroko pinturaren erakusgarri bakarra hau delarik.

Pintura honek duen interesgarritasuna ez da bere ikonografian bakarrik aurkitzen; ikuspegi plastiko batetik aztertuta, XV. mendeko pintura flamandarrak berea zeukan errealismoarekin betebeteen egiten dugu topo. Hala ere, pertsonaien fakzioak lanterakoan nabarmena den

errealismo hori, oihalen tolesdura aberatsa edota kalitateak bilatu nahia, teknika arrunt batez eta konplikazio gehiegirik gabe lortu dela antzeman daiteke.

Nolabaiteko axolagabeberia teknikoak, batetik, eta gaiak berak, bestetik, obra honen egilea Virgo inter Virgines-en Maisuaren izenaz ezaguna den Delft-eko anonimoa izan daitekeela pentsarazi dute; hala ere, era bilitako paleta eta pertsonaien eredu fisikoa ez datoz bat aipatu maisuarekin; Bergaran aurkitzen den obrak ez du artista honi leporatu izan zaizkion xehetasun falta eta kolore ilun horien aztarnarik erakusten, eta beraz, egilea XV. mendearen azken hereneko maisu flamandar edo holandar ezezagun bat izan litekeela deritzogu.

M.J. Aranburu eta  
J. Gil Masa

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**AGOITZ**  
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58  
BERGARA



Pol-Pol Mendizale Taldea

Gorla Alpino Taldea

**ZER EGIN  
ZABORRAREKIN?  
ETXERA, MESEDEZ!!**





# BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



## Lide Oregi

Lide Oregik irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria.  
10.000 pzta eman diogu sari modura berak jarritako  
erantzuna, argazkian agertzen zen baserria Txara zela,  
zuzena zelako.

Zorionak Lideri eta, besteok, segi jokatzen!!

*Zein da argazkian agertzen den "Euskadi, askatasunaren bidea" izeneko  
eskulturaren egilearen izena?*



Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**Aste honetako  
saria : 10.000 pzta.**

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA  
Errotalde Jauregia Bergara**



# TXURINGO JATE TXEA



Osintxuko plaza, Tfnoa: 76 48 63

## **IREKI BERRIA!!**

- Menua eta karta
- Ezkontzak, jaunartzeak.
- Txerrikumea , bildotsa, eta baserriko oilaskoak labean erretan.

# LILURA

## Edertze institutua

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.  
Bakoitzarena banan-banan zaindu  
beharra dago.  
Utzi ezazu benetako espezialisten  
eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

Tfnoa: 76 31 71

BERGARA



❑ **Arrantzan**

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, igandean, hilak 14, goizeko 8etatik eguerdiko 12 t'erdietara bitartean Angiozarren jokatu den peska lehiaketan. Antolatzaileek jendearen erantzunaren arrakasta azpimarratu nahi izan dute, gaztetan 30 eta nagusietan 20 bat partaide arituko baitira.

❑ **Kirol Eskolak**

Datorren larunbatean, ekainak 20, Udaltzaileek Kirol Eskolen jai ospatuko da kiroldegian. Goizeko 9 t'erdietatik ordubata t'erdietara hainbat kirol proba jokatu dira ikasturteari amaiera emateko. Ondoren, zenbait opari banatu dira partaideen artean.



**Igoeraren bila**

Bergarako futbol taldeak larunbat honetan ekingo dio preferente mailarako igoera lortzeari Rotetaren aurka jokatu duen partiduan. Asteartean eginiko zozketaren arabera joaneko partidua Donostiako Herrera auzoan jokatu da larunbatean arratsaldeko 6etan eta datorren larunbatean, hilak 20, ordutegia zehaztuta ez badago ere, donostiarrak izango ditugu bisitari.

Lazkaoren aurka jokatu duen partiduan igoera zuzenean lortzeko aukera galdu bazen ere, Alex Garitano presidentea baikor azaltzen da partiduari begira. *"Pena izan zen bai hura galtzea, baina oraingoan ez dugu hutsik egingo taldea ondo baitago"*. Zihurrenik, Arregi entrenatzaileak ez du inolako aldaketarik egingo ligako azken ihardunaldietan jokatu izan duen taldean.

❑ **Zaharrak**

Larunbat honetan Oñatin jokatu den Deba Garaiko 3. adinekoen lehenengo olinpiadan Bergarako partaidetza ere izango da. Guztira, herriko 50 bat zaharrek hartuko dute parte proba guztietan. Zorte on guztioi!!

❑ **Pala**

Datorren igandean, ekainak 21, jokatu da Osintxuko pelotalekuan Udaltzaileek Kirol Zerbitzuak antolatutako II. Pala Txapelketa. 14 bikotek hasi bazuten txapelketa, liga eta kanporaketa ezberdinak jokatu ondoren, Guezala-Txopitea eta Peñalba-Garmendia bikoteak izango dira eguerdiko 12etatik aurrera txapelaren bila jokatu dutenak.



**Pelotaren txanda**

Ostiralean, hilak 12, gaueko 10etan jokatu dira frontoian Bergara eta Azpeitiaren arteko Herri Arteko Txapelketaren itzulerako partiduak. Joan den astean bergarrek 2 eta 1 galdu zuten Azpeitian, seniorretan irabazi eta infantil eta jubeniletan galdu ondoren. Bestalde, Elgetako 4,5ko txapelketan, asteazkenean Cocak 22 eta 21 irabazi zion Balerdiri eta beste aurrefinalean Nagore nagusitu zen Belokiri 22 eta 18 irabaziz. Ekainaren 19an jokatu diren finaletan, kadeteetan, Otaegik, Berraondo-Matxain kanporaketako irabazlearen aurka jokatu du.

**ederTu**

**ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK**

Barrenkale 23      Tfnoa: 76 29 65      **BERGARA**

**ARRANO**



**Taberna**

Kruz Gallastegi    **BERGARA**





### *Harizetako San Migelekoak*

**H**arizetako San Migel auzoa famatua da historian berari buruzko eskuizkribu batetan agertzen delako lehenengo aldiz, «Bergara» izena. Gaur egungo bergararrantzat goiz edo arratsalde pasa joateko lekua da eta, batez ere, Asentzio eguna izaten da bertara bueltatxo bat emateko eguna.

Argazki hau ere Asentzio egunez 1954ean ateratakoa da. Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

**Zutik daudenak:** Antonio Agirrebeña, Francisco Larrañaga, Dionisio Egaña, Juanito Retegi, Luis Intxausti, Julian Muniategi, Hilario Gorriti, Angelita Mur, Martin Agiriano, Arantza Linazisoro, Arantza Garmendia, Jose Ramon Irigoien, Mari Karmen Etxebarria, Mari Karmen Elorza, Martin Arrese-Igor, Nati Etxebarria, Juan Jose Agirre, Rosa Mari Larrañaga, Pilar Fernandez, Esther Biziola, Matilde Beaskoetxea.

**Zutik dagoen mutikoa:** Luis Jose Intxausti.

**Makurtuta dauden neska-mutikoak:** Jose Bengoa, Jesus Mari Ibarguren, Jabier Gantxegi, Jose Antonio Agirrebeña, Jose Inazio Egaña, Elenita Larrañaga eta Maite Barrena.

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Txaro Oteo*

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

**DENA 100**

**pzta.tan**

**Ireki berria**

**SIMON ARRIETA 3an**



**ETXEBIZITZA**

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua errentan hartuko nuke Deba garaian. ☎ 79 89 88.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsaldez).

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzentzen ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Apartamentua alokatzentzen da (garaje eta guzti) Jakan. ☎ 76 43 98.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

**SALDU-EROSI**

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ markakoa, Shimano Deore-rekin ekipatua. ☎ 76 49 56 (gaeuz).

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Seter txakurkumak salgai ☎ 76 35 01 (gaeuz).

Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 76 14 79.

3 pertsonarentzako iglu kanping-denda berria salgai. ☎ 76 34 95.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

**LANA**

Arratsaldetan galxoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

Bajua jotzen ikasteko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 17 85.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

**Hildakoak**

*Martin Garaiz Ongi*  
ekainaren 5ean, 79 urte

**Jaiotakoak**

*Gaizka Urzelai Labaien*  
maiatzaren 31ean  
*Nerea Agirre Cano*  
ekainaren 5ean

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**  
**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara!!**


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70



**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41






# SORALUZE OSTATUA

IREKI  
BERRIA!!

- Logela ederrak zerbitzu guztiekin.
- Eguneko menua eta karta.
- Ezkontzak, banketeak, bataioak, enpresako bilerak,...

Arantzazurako Bidea z\g Tfnoa: 76 61 79 - 71 60 70 Faxa: 71 60 70 OÑATI

## Zaraian bi astetako kanpamendua

*Araoztik hurbil (Arantzazura bidean)*

- ✓ 60-75 klase-ordu
- ✓ 15-20 orduko ikastaroa zaldi gainean ibiltzen ikasteko
- ✓ Pentsio osoa
- ✓ Plaza mugatuak (20 pertsona)
- ✓ 69.000 pzta. Asegurua barne

### UZTAILEKO IKASTAROAK

### INGLES IKASTARO INTENTSIBOAK

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Talde txikiak (gehienez 5 pertsona)
- ✓ Irakasle inglesak
- ✓ Bi ordu egunean

Burdinate 5,  
Tfnoa: 76 30 01  
Fax: 76 00 82  
BERGARA

Erdiko kalea 37,  
Tfnoa: 79 90 36  
ARRASATE

THE DOOR TO

LA PUERTA AL

